

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2006/113/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, moluskuak hazteko urei eskatzen zaien kalitateari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/113/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, relativa a la calidad exigida a las aguas para cría de moluscos*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 376/14 de 27/12/2006*)

**2006/113/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2006ko abenduaren 12koa, moluskuak hazteko urei eskatzen zaien kalitateari buruzkoa (Bertsio kodetua)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki, tratatu horretako 175. artikuluko 1. paragrafoa ikusita,

Batzordeak egindako proposamena ikusita,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ikusita,

Aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari kontsulta eginda,

Tratatuko 251. artikuluko araututako prozedurari jarraiki <sup>1</sup>,

eta ondorengoak kontuan hartuta:

- (1) Moluskuak hazteko urei eskatzen zaien kalitateari buruzko Kontseiluaren 1979ko urriaren 30eko 79/923/EEE Zuzentarauari <sup>(2)</sup> funtsezko aldaketak egin zaizkio <sup>(3)</sup>. Arrazionaltasunaren eta argitasunaren mesedetan, komeni da aipatutako zuzentaraua kodetzeari ekitea.
- (2) Ingurumena babesteko eta hobetzeko, beharrezkoa da urak kutsaduratik babesteko neurri jakinak ezartzea, eta, berariaz, moluskuak hazteko urak babestekoak.
- (3) Beharrezkoa da molusku-populazio jakin batzuk babestea, itsasoko uretan substantzia kutsakorrak isurtzeak dakartzan hainbat ondorio kaltegarriren aurrean.

<sup>1</sup> Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko urriaren 12koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabe) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko azaroaren 30ekoa.

<sup>2</sup> EBEO, L 281 1979-11-10ekoa, 47. or. 91/692/EEE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (EBEO, L 377 1991-12-31koa, 48. or.).

<sup>3</sup> Ikus II. eranskineko A zatia.

(4) Ingurumen Arloan Europar Batasunaren Seigarren Ekintza Programa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 22ko 1600/2002/EE Erabakian <sup>(4)</sup>, kalitate-helburuak elkarren artean jartzea aurreikusten da, ingurumenak bete behar dituen askotariko betekizunak ezartzeko eta, bereziki, uretarako baliozko diren parametroak definitzeko, moluskuak hazteko urak barne.

(5) Moluskuak hazteko urei eskatzen zaien kalitateari dagokionez, estatu kideetan aplikagarri diren xedapenen artean desberdintasunak egoteak lehia-baldintza desberdinak sor ditzake eta, hori dela medio, eragin zuzena izan dezake barne-merkatuaren funtzionamenduan.

(6) Zuzentarau honen helburuak betetzeko, zuzentaraua zein uri aplikatuko zaien adierazi behar dute estatu kideek, eta parametro jakin batzuei dagozkien mugabaliok zehaztu behar dituzte. Urak balio horietara egokitu beharko dira sei urteko epean, ur horiek zein izango diren adierazten denetik hasita.

(7) Moluskuak hazteko urei eskatzen zaien kalitatea kontrolatzen dela ziurtatzeko, gutxieneko lagin-hartzea egin beharko da, eta I. eranskinean ezarritako parametroen neurketak gauzatu beharko dira. Lagin-hartze gutxiago egin ahalko dira, edo lagin-hartzerik egin ez, neurketen emaitzen arabera.

(8) Inguruabar natural jakin batzuk ez dira sartzen estatu kideen kontrolatan eta, hori dela medio, zuzentarau hau kasu jakin batzuetan ez aplikatzeko aukera aurreikusi behar da.

(9) Aurrerapen teknikoak eta zientifikoak beharrezko egin dezake I. Eranskinean ageri diren zenbait xedapen azkar egokitzea. Xede horretarako beharrezko neurriak errazago aplikatu daitezken, komeni da estatu kideen eta Batzordearen artean lankidetzat estua ezarriko duen prozedura aurreikustea. Lankidetzat hori Aurrerapen Teknikora eta Zientifikora

<sup>4</sup> EBEO, L 242 2002-09-10ekoa, 1. or.

Egokitzeko Komitearen barruan gauzatu behar da. Komite hori 2006/44/EE zuzentarauko (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko irailaren 6koa, arrainen bizileku izateko egokiak diren eta babestea edo hobetzea behar duten ur kontinentalen kalitateari buruzkoa) 13. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz sortu zen.<sup>(1)</sup>

- (10) Zuzentarau honek ez du eraginik izan behar II. eranskinaren B zatian ageri diren zuzentarrak barne-zuzenbidean txertatzeko epeei dagokienez estatu kideek dituzten betebeharrak.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

#### *1. artikulua*

Zuzentarau hau moluskuak hazteko uren kalitateari dagokio, eta moluskuak (bibalboak eta gasteropodoak) ur horietan bizi eta haz daitezen ahalbidetzeko Estatu kideek babestu edo hobetu beharrezkotzat jo dituzten kostaldeko urei eta ur gazikarek aplikatuko zaie. Horrela, zuzenean gizakiak jaten dituen moluskuak kalitate onekoak izan daitezten lagunduko da.

#### *2. artikulua*

I. eranskinean jaso dira estatu kideek adierazitako urei aplikagarri zaizkien parametroak.

#### *3. artikulua*

1. Adierazitako uretarako, estatu kideek I. eranskinean adierazitako parametroetarako balioak zehaztuko dituzte, G zutabearen edo I zutabearen balioak agertzen diren neurrian. Bi zutabe horietan ageri diren oharrak aintzat hartuko dira.

2. Estatu kideek ez dituzte I. eranskineko I. zutabearen ageri diren balioak baino zorrotasun gutxiagoko balioak zehaztuko, eta G zutabearen ageri diren balioak betetzen saiatuko dira, 8. artikuluan adierazitako printzipioa kontuan izanik.

3. «Substantzia organo-halogenatuak» eta «metalak» parametroetan jaso diren substantzien isuriei dagokienez, 2006/11/EE zuzentarrak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko otsailaren 15ekoa, Europar Batasuneko ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako kutsadurari buruzkoa) betez, estatu kideek ezarritako isurien inguruko

<sup>1</sup> EBEO, L 264 2006-09-25ekoa, 20. or.

arauak <sup>(2)</sup> kalitate-helburuekin batera eta aldi berean aplikatuko dira, bai eta Zuzentarau horretatik —bereziki, laginketari dagozkien betebeharratik— eratorriko diren gainerako betebeharrak ere.

#### *4. artikulua*

1. Estatu kideek moluskuak hazteko urak zein diren adieraziko dute eta, gero, deklarazio osagarriak egin ahalko dituzte.

2. Estatu kideek ur jakin batzuen deklarazioa berraztertu ahalko dute, batez ere, deklarazioaren datan aurreikusi ez ziren faktoreak daudela ikusten bada, eta 8. artikuluan azaldutako printzipioa kontuan izanik.

#### *5. artikulua*

Estatu kideek zenbait programa ezarriko dituzte kutsadura murrizteko, eta deklaraturako urak, 4. artikuluaaren arabera egindako deklaraziotik hasita sei urteko epean, estatu kideek 3. artikuluari jarraikiz zehaztu dituzten balioetara eta I. eranskineko G eta I zutabeetan ageri diren oharretara egokitu direla ziurtatzeko.

#### *6. artikulua*

1. 5. artikulua aplikatzeko, deklaraturako urak Zuzentarau honen arabera hartuko dira aintzat, baldin I. eranskinean ezarritako gutxieneko maiztasunaren arabera laginketa-toki berean eta hamabi hilabeteko aldi hartutako uren laginek estatu kideek 3. artikuluari jarraikiz finkaturako balioak eta I. eranskineko G eta I zutabeetan ageri diren oharrak errespetatzen dituztela erakutsiko balute, hauei dagokienez:

- a) laginen % 100, «substantzia organo-halogenatuak» eta «metalak» parametroetarako;
- b) laginen % 95, «gazitasuna» eta «oxigeno disolbatua» parametroetarako;
- c) laginen % 75, I. Eranskinean ageri diren gainerako parametroetarako.

Baldin eta, 7. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, I. eranskinean ageri diren parametro guztietarako (salbu zenbait enuntziatu, besteak beste, «substantzia organo-halogenatuak» eta «metalak») laginketen maiztasuna I. eranskinak adierazten duena baino txikiagoa bada, paragrafo honetako lehenengo lerrokadan aipatzen diren balioak eta

<sup>2</sup> EBEO, L 64 2006-03-04koa, 52. or.

oharrak berriz egin beharko dira lagin guztietan.

2. Estatu kideek 3. artikuluari jarraikiz ezarri dituzten balioak edo I. eranskineko G eta I zutabeetan ageri diren oharrak ez badira betetzen, ez-betetze hori ez da aintzat hartuko 1. paragrafoan ezarritako ehunekoak kalkulatzeko, hondamendiren baten ondorio denean.

#### *7. artikulua*

1. Estatu kideetako agintari eskudunek laginketak egingo dituzte, eta laginketa horien gutxieneko maiztasuna I. eranskinean ezarriko da.

2. Agintari eskudunak egiaztatzen duenean adierazitako uren kalitatea 3. artikuluari jarraikiz ezarritako balioak aplikatuz eta I. eranskineko G eta I zutabeetako oharretatik lortuko litzatekeen kalitatea baino nabarmenki handiagoa dela, laginketak maiztasun txikiagoz egin ahalko dira. Uretan inolako kutsadurarik ez badago, eta uren kalitatea gaizkitzeko arriskurik ez badago, agintari eskudunak laginketak ez direla beharrezko erabaki ahalko du.

3. Baldin eta, lagin-hartze baten ostean, 3. artikuluari jarraiki zehaztutako balioren bat edo I. eranskineko G eta I zutabeetako oharren bat ez dela bete ikusten bada, agintari eskudunak zehaztuko du ea egoera hori halabeharrendaren emaitza den, fenomeno naturalen batek eragin duen edo kutsadura dela eta gertatu den, eta dagozkion neurriak hartuko ditu.

4. Estatu kide bakoitzeko agintari eskudunak zehaztuko du zein toki zehatzetan hartu behar diren laginak, toki horretatik hurbilen dagoen kutsatzaileen isuri-puntura zein distantzia egon behar den eta laginak zein sakontasunean hartu behar diren, bereziki, inguruko bertako baldintzen arabera.

5. I. eranskinean zehaztuko da erreferentziazko zein analisi-metodo erabili beharko diren kasuan kasuko parametroen balioa kalkulatzeko. Bestelako metodoak erabiltzen dituzten laborategiek ziurtatu beharko dute lortutako emaitzak I. eranskinak adierazten dituen emaitzen baliokideak direla edo horiekin aldera daitezkeela.

#### *8. artikulua*

Zuzentarau hau betez hartzen diren neurriak aplikatzearen ondorio ezingo da izan, inolaz ere, kostaldeko uretako edo ur gazikaretako kutsadura areagotzea, ez zuenean, ez eta zeharka ere.

#### *9. artikulua*

Estatu kideek nahi dutenean ezarri ahalko dituzte

deklaraturako uretarako zuzentarau honetan xedatutako balioak baino zorrotzagoak. Halaber, zuzentarau honetan zehazten ez diren parametroei dagozkien xedapenak ere hartu ahalko dituzte.

#### *10. artikulua*

Estatu kide batek beste estatu kide batekiko mugan dauden ur batzuk moluskuak hazteko izango direla deklaratzeari aurreikusten duenean, estatu horri kontsulta egingo zaio ur horietako zein zatiri aplikatu ahalko litzaieken zuzentarau hau erabakitzeko, bai eta kalitate-helburu komunitatik atera beharko diren ondorioak zehazteko ere. Ondorio horiek interesdun estatu kide bakoitzak zehaztuko ditu, aldez aurretik adostuta. Batzordeak parte hartu ahalko du erabaki horietan.

#### *11. artikulua*

Estatu kideek zuzentarau hau ez aplikatzea erabaki dezakete ohiz kanpoko baldintza meteorologikoak edo geografikoak daudenean.

#### *12. artikulua*

2006/44/EE zuzentzarauko 13. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki sortutako batzordeak ezarriko ditu parametroetako G balioak eta I. eranskinean ageri diren analisi-metodoak aurrerapen teknikora eta zientifikora egokitzeko beharrezko aldaketak, zuzentarau horretako 13. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera.

#### *13. artikulua*

1. Zuzentarau hau ezartze aldera, estatu kideek ondoko hauen inguruko informazioa emango diote batzordeari:

- a) 4. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki deklaratu diren uren inguruko informazioa, laburbilduta;
- b) zenbait uren deklarazioa 4. artikuluko 2. paragrafoaren arabera berrikusteari buruzko informazioa;
- c) 9. artikuluari jarraiki, parametro berriak ezartzeko hartutako xedapenen inguruko informazioa.

2. Estatu kide batek 11. artikulua jotzen duenean, Batzordeari jakinaraziko dio berehala, eta arrazoiak eta epeak zehaztuko ditu.

3. Oro har, estatu kideek zuzentarau hau ezartzeko beharrezko informazioa emango diote Batzordeari, horrek behar bezala motibatuta hala eskatzen duenean.

#### *14. artikulua*

Hiru urtean behin, eta lehendabiziko aldiz, 1993 eta 1995 urte arterako (biak barne), estatu kideek zuzentarau hau ezartzeari buruzko informazioa bidaliko dute Batzordera. Informazioa sektorekako txosten gisa aurkeztuko da eta Europar Batasuneko gainerako zuzentarau egokiak ere aztertuko ditu.

Txosten hori prestatzeko oinarritzat hartuko da Batzordeak, 91/692/EEE zuzentaruoko (Kontseiluarena, 1991ko abenduaren 23koa, ingurumenari dagozkion zuzentarau jakin batzuk ezartzearen inguruko txostenak normalizatzeari eta arrazionalizatzeari buruzkoa)<sup>(1)</sup> 6. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki, egin duen galdeketa edo eskema. Galdeketa edo eskema estatu kideetara bidaliko da txostenak hartzen duen aldia hasi baino sei hilabete lehenago. Txostena Batzordera bidaliko da bederatzi hilabeteko epean, txostenak hartuko duen hiru urteko aldia bukatzen denetik hasita.

Batzordeak zuzentarau hau aplikatzeari buruzko Europako Erkidegoaren txosten bat argitaratuko du, estatu kideen txostenak jasotzen dituenetik hasita bederatzi hilabeteko epean.

#### *15. artikulua*

Estatu kideek Batzordean emango dute zuzentarau honek arautzen duen esparruan onartuko duten barne-zuzenbideko xedapen nagusien testuaren berri.

#### *16. artikulua*

79/923/EEE Zuzentaruua indargabetzen da, baina horrek ez du eraginik izango II. Eranskinaren B zatian ageri diren zuzentaruak barne-zuzenbidean txertatzeko epeei dagokienez estatu kideek dituzten betebeharretan.

Baliogabetutako zuzentaruari egingo zaizkion aipamenak zuzentarau honi egin zaizkiola ulertuko da, eta III. eranskinean ageri den baliokidetzataularen arabera irakurriko dira.

#### *17. artikulua*

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeitun egunera sartuko da indarrean.

#### *18. artikulua*

---

<sup>1</sup> EBEO, L 377 1991-12-31koa, 48. or.

1882/2003 Erretelamenduak (EE), Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, aldatutako Zuzentaruua (EBAO, L 284 2003-10-31koa, 1. or.).

Zuzentarau hau estatu kideei dago zuzenduta.

Estrasburgon eginga, 2006ko abenduaren 12an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea,*  
J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea,*  
M. PEKKARINEN